

# 1

## ASABA ZAHARREN BARATZETIK MUNDU ARRANORA. EUSKARAREN KOMUNIKAZIO-ESPARRUA ARO GLOBALEAN

**Aitor Zuberogoitia**

*HUHEZIKo irakaslea (Mondragon Unibertsitatea)*

Helbide elektronikoa: [aitor\\_zuberogoitia@huhezi.edu](mailto:aitor_zuberogoitia@huhezi.edu)



Bizitza aldaketa dela zioen besteak, baina garai batzuk bareagoak eta beste batzuk trumoitsuagoak izan ohi dira. Azken horietakoak izan ziren Euskal Herriak XIX. mendearen bigarren erdialdean bizi izandakoak, gauza jakina da hori. Ez zen faktore bakarra izan orduko aldaketen eragile nagusi, arrazoi askoren baturak ekarri baitzituen mudantza horiek: industrializazioa, derrigorrezko eskolatzea, masa gizartearen sorrera, foruen galera edota komunikazioetan izaniko iraultza gogora ekartzea baino ez dago esanikoa egiaztatzeko.

Azken puntu horri dagokionez, nongura entzuten da egunotan inprimategiak edota Neolito garaiak ezarrirako mugarrien parekoa jarri duela Internetek, hankaz gora paratu dituela nola lan egiteko moduak hala giza harremanak, baina, unibertso elektronikoa jaio izanaren garrantzia auzitan jarri barik (baina bazterrotan *el partido del siglo* hilean behin edo jokutzen delako konbikzioak atezuan jarrita), ez genituzke gutxietsi behar XIX. mende amaieran eta XX. hasieran izan ziren asmakizunak; izan ere, zertzuk ez zituzten ekarri gerora XVIII. mendean asmatuak: Morse kodea, trenbidearen hedapena, uhin elektromagnetikoak, telefonoa, elektrizitatea, irratia, argazki makina, zinematografoa, automobila, hegazkina...

Baiki, lurrak, orduan ere lehenago bezala, infinituak ziren oraindik haur-oin ttipientzat, baina heroi izatea ez zen dagoeneko ezinbesteko baldintza bazterrak korritzeko. Mundua txikiago zitzaien bat-batean tresna berrien laguntzaz beronen berri zuten bizilagun harrituei, eta lehen aipaturiko asmakizunei esker bazegoen, ordura arte ez bezala, bazterrak korritu barik ere etxetik bertatik ludi zabalera leihoa zabaltea.

Aldaketa orok, ordea, mesfidantza zabaldu ohi du bazter askotan, egoera berrira egokitzeko koordinatuak oraindik definitzeke egoten direlako maiz. Mesfidantza beldur ere bihur daiteke, arbuio, malenkonia, baldin eta mundua kax-kax ate-joka datorren uneak norbere komunitatearen desintegrazio-prozesuarekin bat egiten badu denboran; ez dago urrunera joan beharrik adibide bila: galdu dira Foruak, mugitu dira aduanak, ezarri dute derrigorrezko soldadutza, erlijioa atzeraka hasi da apurka-apurka eta hurrengo urteetan gizartearen kohesio-elementu nagusi eta ia bakar izateari utziko dio, hazi dira hiriak, fabrikak, etorkin-oldeak... eta hara hor Arrese Beitiaren deitorea edota Txomin Agirreren manikeismoak.

Baina, aldaketak aldaketa, bizitzak aurrera egin zuen, une oro egokitzapen-ahaleginak eskatuz banakoei zein herriei. Ahalegin horiek, gainera, geroz eta abiada biziagoan zihoan egunerokotasunean egin behar ziren, distantzia fisikoen txikiagotze etengabea bizi zuen egunerokotasunean.

Konplexua izan da beti partikularraren eta unibertsalaren arteko dialektika, eta are konplexuagoa ausaz hizkuntza-komunitate gutxituen kasuan. Horregatik beharbada, gisa honetan mintzo zen Lizardi "Parisko txolarrea" olerkian duela mende bat inguru (2000: 41):

*"Nun-nahitar izan minez,  
ostera, gizona  
bai txori baldarra!  
Aleginak eginez  
bebil handik hona:  
etxez kanpora beti duk baserritarra.*

*Labur: nere burua  
Parisen ikusiz  
hain lotu ta arlote  
otoi nizun zerua,  
zehatz adiraziz  
gizon baino nahiago nukela txolarre".*

Badago hor, bistan denez, kosmopolitismo errogabearen kritika zuzen bat, baina antzeman daiteke, era berean, kanpora zabaldu nahi eta ezin bat, mundu zabalera egokitu ezin bat. Kinka historiko beretsuan (Lizardi ez bezala, 1936ko gerra aurreko euskal letren pizkundea ezagu-

---

*Nongura entzuten da  
egunotan inprimategiak  
edota Neolito garaiak  
ezarritako mugarren  
parekoa jarri duela  
Internetek.*

*Aldaketa orok  
mesfidantza zabaldu ohi  
du bazter askotan, egoera  
berrira egokitzeko  
koordinatuak oraindik  
definitzeke egoten  
direlako maiz.*

**Konplexua izan da beti partikularraren eta unibertsalaren arteko dialektika, eta are konplexuagoa ausaz hizkuntza-komunitate gutxituen kasuan.**

**Norberaren aldaratearen arabera aldaketa garaiak larriminez bizi daitezkeela, edota, jarrera aldatu eta momentuko gabezia bertute bihurtzen jakinez gero, badagoela une horiek aukera modura ulertzerik.**

tu barik, hori bai) eta abertzaletasun jeltzale berberak blaitua egonagatik, beste haize batzuk dakarzkigu Juan Bautista Bilbao *Batxi*-k.

Egia da Lizardik bezala sabindar jarrera garbia daukala *Batxi* ere. Gisa honetan mintzo da, berbarako, 1914an Gibraltartik idatzitako kronikan (1997: 25-26):

“Ez da ikusten honetan, gure aberri aldean legez, zuhaitzi alairik, ez etxe bazter ugariarik, mendi bedartsurik, ez herri etxeturik. Hemen dena da txirotasuna eta itzaltsuna. Jaunari zertan eskerrak emon daukagu guk euskotarrak geure aberria egin euskulako, udabarriko loratuak langoa, txoritxuaren abesti zolitzua langoa, berorren zelai loratuekin, meta bedartxuekin, mendi zuhaitzuekin, herri etxetu alai-alaiekin, euren erdian eliza dabela, bere txilin hotsek poztutzen dabezela biztanleen bihotzak, eta bardin euren hotsaz batera zerura zuzenduz otoiak Ama Birjinagaz gomutaturik.

Hemen hodeiak dira alaiagoak eta ortzea garbiagoa gure aberrian baino. Baina besterik ezebez. Bestelakoa da gure herri maite hori!”

*Batxi* ere bere garaia kume da, argi dago, baina, Koldo Izagirre eta Iñigo Aranbarrik dioten moduan, Euskal Herria orduko jeltzaleen erlijio-sentimendu berarekin maite arren, Arratzuko semea munduko hamaika bazterretan barrena ere eroso asko dabil (in Bilbao, 1997: 17):

“Atzerriko kronikak dira, zalantzarik gabe, *Batxi* Bilbaoren lan nagusia, eta arrazoi askorengatik. Atzerrian, Europako portuetan, *Batxi* libre zegoen, Mazarronen ez zegoen batzokirik, Cardiff-en ez zituen karlistak pairatu behar, Savona-n ez zegoen Gernikako feriarik. Distantziak libreago egiten du *Batxi* idazlea. Abertzale sutsua eta maiz topikoa baldin bada ere, Bilbaok lortzen du bere kutsu militantea eta bere proselitismoa arintzea munduan barrena dabilenean”

Jarrera-kontua ere badela, alegia. Hots, norberaren aldaratearen arabera aldaketa garaiak (mundua etxera baimenik eskatu barik sartzen zaiguneko garaiak, lurrazpia dardaraka sumatzen duguneko garaiak) larriminez bizi daitezkeela, edota, jarrera aldatu eta momentuko gabezia bertute bihurtzen jakinez gero, badagoela une horiek aukera modura ulertzerik.

## HEMEN ETA MUNDUAN

Nola Lizardi hala *Batxi* aspaldi antzean bizi izan ziren, baina geuri ere, haiei bezala, ate-joka etorri zaigu mundu arranoa, globalizazio-haizeak tar-teko. Eta, gustatu ala ez, jokaleku horretan jokatu beharra daukagu, ezen zirimolaren zakarrari erreparatuta kirikinoarena egitea erreazio erabat logiko eta ulergarria den arren, dezentez eraginkorrago baita surfliaren gisan olatuei neurria hartu eta haien indarra baliatuz aurreraka jarraitzea.

Esaten ari garen guztiaren harira, hitzaldi interesgarria eskaini zuen Vicent Partal Bartzelonako *Vilaweb* hedabide elektronikoko<sup>1</sup> zuzendariak Donostian (aurtengo otsailaren 20an, Soziolinguistika Klusterraren II. Jardunaldietan). Malores Etxeberraren kronikaren arabera (2009), Partalek esan zuen gaur egun ez dela nahikoa hizkuntza jatorrizko lurraldean normalizatzea: kanpoan ere normalizatu beharra dauka. Katalanaren espe-

rientziatik hitz egin zuen berak, eta, esperientzia hori gogoan, euskara hizkuntza globaltzat lantzea gomendatu zigun euskaldunoi. Horretarako, besteak beste, funtsezko iritzi zion Interneteko presentzia bermatzeari.

Unibertso birtualean, mugak desegin eta beste mundu batzuetako atek zabaltzen dizkigun jokaleku berri horretan, hizkuntza-aniztasuna da nagusi (ahaztu barik, hori bai, hizkuntza bakoitzaren pisua eta presentzia oso desberdinak direla hor ere). Partalen irudiko, elebitasunak ez bezalako aukerak damaizkigu hizkuntza-aniztasunak. Bere ustez Interneteko lehen 40 hizkuntzen artean egotea da hizkuntza kanpoan normalizatzea. Behin *top 40* horretan zaudela, ezaguna zara, existitzen zara. Bitartean, ezta zarenik ere.

*Vilaweb*-eko zuzendariak adibide argigarria eman zuen ideia hori ilustratzeko: Hanburgo hiriarren webgunea katalanez ere badagoela konturatu eta horren arrazoia bila hasi ei ziren, eta baita zera jakin ere: webgunea diseinatzeko enpresak agindu bat jaso zuela, alegia, produktua Interneten presentzia handiena zuten lehen 40 hizkuntzetan jartzeko. Ez da, gainera, hiztun-masa 40ko club horretan sartzeko faktore erabakigarria (ez behintzat bakarra): hiztun-kopuruz euskararen antzeko tamaina daukan estoniera aipatu zuen Partalek, Interneten daukan presentziagatik guretzat eredugarri izan daitekeelakoan. Guk, ordea, bide luzea daukagu egiteko, IXA taldeko Kepa Sarasolak jakinarazitako berriak adierazten duen moduan (2009: ork. gabe): “Gaur egun 51 hizkuntza darabil Google Translate arrakastatsuak itzulpenak egiteko, baina horien artean ez dago euskara. Baliabide gutxiagoko hizkuntza batzuk sartuta daude listan horretan; uda honetan bertan gehitu dituzte galegoa, galesera, gaelikoa eta islandiera (320.000 hiztun); aurreko urtean gehitu zuten katalana.”<sup>2</sup>

Orain artean bazterrotan nagusi izan den elebitasun sozialak gurea bezalako hizkuntza gutxituei erreka joarazten diela ere esan zuen Partalek, eta eztabaidagarriagoa izan daitekeen ideia bota zuen hurrena: Internetek beste hizkuntza guztien artean lehiatzera garamatza eta lehia horretan aukera handiagoak omen ditugu (ideia eztabaidagarria dela diot, jokaleku horretan aukerak ugaritzen direla egia izan arren, mehatxuak ere proportzio berean hazten direlako; hortxe frogatu behar, beraz, abilezia: balantza aukeren aldera erorarazten). Hortik aldarrikatzen du komunikatzaile katalanak gurea bezalako hizkuntza txikien etorkizuna hemen bakarrik ez, kanpoan ere jokatzen dela.

## INDAR ZENTRIFUGOAK, INDAR ZENTRIPETOAK

Mundu globala eta hizkuntza-aniztasuna izan ditugu hizpide orain arte, baina, zertan da gaur egun mundu-arrano hori komunikazio-kontuei dagokienez (hedabideez ari gara orain)? Unibertsoa gobernatzen omen duten bulkada nagusi biak antzeman daitezke arlo honetan ere: indar zentrifugoak eta indar zentripetoak, alegia.

---

*Gaur egun ez dela nahikoa hizkuntza jatorrizko lurraldean normalizatzea: kanpoan ere normalizatu beharra dauka.*

**Unibertso birtualean, mugak desegin eta beste mundu batzuetako atak zabaltzen dizkigun jokaleku berri horretan, hizkuntza-aniztasuna da nagusi (ahaztu barik, hori bai, hizkuntza bakoitzaren pisua eta presentzia oso desberdinak direla hor ere).**

Indar zentripetoei gagozkiela (hau da, fusio- eta kontzentrazio-prozesu indartsuak bultzatzen dituzten indarrak), nazioarteko sei inperio mediatiko erraldoiak aipatu behar dira, ezinbestean: Time Warner, Disney, Sony, Bertelsmann, Viacom eta News Corporation. Nazioarteko komunikazio-jarioaren zati handiena kontrolatzen dute seien artean, eta euretako bakoitzak adar ugari ditu: telebista, film-ekoizpena, irratia, kazetagitza, liburugintza, Internet eta softwarearen mundua... Hona haiei buruz Daya Kishan Thussuk eginiko erradiografia argigarria (2006: 100-103):

	Time Warner	Disney	Sony	Bertelsmann	Viacom	News Corporation
TBa	CNN, TNT, +25kate gehiago	ABC, Disney Channel.	Nazioarteko 40kate	M6, Plug TV RTL...	MTV, Nickelodeon.	Fox(35kate), Star (1 kate Asia)
Filmak	WarneBros	Walt Disney St.	SonyPicture Ent		Paramount	Fox
Kazetak	TimeInc. et: IPC mediaa 140kazeta orotaja	20kazeta baino gehiago		National Geographic, Stern eta 125 gehiago		11 @gunkari etzenbait aldizkari
Irratia		ABC (71 kate) + bestzenbai		RTL Radio	Infinity Broadcast	SkyRadio
Liburuak	WarneB. Books	Hyperion Disney		Random House	Simon & Schuster	HarperCollins
Musika	AOLmusic	Buena Vista	SonyMusic	Sony BMG (JV)	Famous Music	FoxMusic
Internet+ software	AOL Inc.	WD Inter netGroup	Sony Computer	Arvato Mobile		MySpace.com

Badira, era berean, beste indar zentripeto alternatibo batzuk ere, hala nola 1996an Quatarren sorturiko Al Jazeera telebista (50 milioi ikusletik gora munduan), telenobela latinoamerikarren sektorea (50 hizkuntza baino gehiagotan ikus daitezke mundu zabaleko 100 herrialde baino gehiagotan), Hollywood bera baino lehenago sorturiko Bollywood-eko film industria (1897an Mumbain sortua, 2004an 990 milioi dolarreko etekinak izan zituen, euretarik 220 atzerrian, eta esportazioak %50 inguruan hazteari ekin zion sasoi horretan) edota Indiako Zee telebista (1992an sortua, 350 milioi ikusle ditu 120 herrialdetan).

Autobide zabal horiek, alabaina, nekez uzten diete lekuri tokian tokiko kultura txikiei, salbuespenak salbu. Indar zentrifugoak desoreka hori gainditzeko saiatzen dira, horretarako zentro boteretsuen bideetatik aldendu eta euren bidegorri-sare propioak eratuta. Haatik, dirua behar da horretarako, eta hor hasi ohi dira oztopoak hizkuntza gutxitu askorentzat.

Egia da, dena dela, iraultza digitalak eta teknologia berriek demokratizatu egin dutela hedabidegintza (eta egun hedabideetara mugatzen ez den komunikazioaren mundua bera, oro har), kostuak merkatu eta bitartekoak askoz jende gehiagoren esku jarrita. Olatu hori baliatuta,

*Don't hate the media, be the media* lelo ezagunak bide egin du, baina oso gogoan izan behar genuke, hala ere, ez duela mundu guztirako balio: aurten bertan, barbarako, Ekuadorren kitxuazko tokiko telebista bi egin guran dabilzan egitasmo biren bultzatzaileekin egoteko modua izan dugu HUHEZIn (Mondragon Unibertsitatea), Garabide Gobernuz Kanpoko Erakundearekin (GKE) izaniko elkarlana tarteko, eta, ohiko hedabideak egitearen zailtasun ekonomikoez jardun zitzaizkigunean, Interneten aukeraz hitz egin genien xalo-xalo, hots, egunotan, teknologiaren aurrerapena dela bide, kostuak asko jaitsi direla, eta, Interneterako sarbide egokia izanez gero, ia edonork egin dezakeela bere hedabide propioa (idatzizkoen kasuan, gainera, inprimatze- eta banaketa-gastuen zama arintzen duzu horrela). Haatik, haien erantzuna ere argigarria izan zen: Ekuadorko eskualde gehienetan ez dago Interneterako sarbiderik, oso lagun gutxiren esku dagoen luxua da hori bazter haietan.

Haien oztopoak, ordea, ez dira soilik teknologikoak, edo hori begitandu zitzaigun guri behintzat eurekin solasterakoan, eztabaida kontzeptualean kateatuta sumatu baikekituen: hizkuntza bakarrean jardutea oso ausarta ez ote zen, hedabideetatik gaztelania baztertzen bazuten itxikeria ez ote zieten egotziko, elebitasunaren hautua ez ote zen hobe...

Ondorio argi samar bat atera genuen haiekin izan eta gero: hedabide kontuan (eta auziari hizkuntzaren ikuspegitik begiratuta beti ere) haiek baino askoz hobeto gaudela, eta hori, bi arrazoi nagusi direla tarteko:

- Batetik, ideologikoki, euskal (hots, euskaraz diharduen) hedabide zenbaitek behinik behin gaituta daukalako elebitasunaren inguruko auzi kontzeptuala<sup>3</sup> eta euskara hutsean diharduelako, konplexu barik jardun ere.
- Bestetik, eta Mendebalde aberatsean bizi garenez, herrialde pobretuetan ez bezalako azpiegiturak ditugulako, teknologikoki garatuta gaudelako, ez dagoelako bazterrotan Internetera konektatzeko zailtasunik.

Baldintzak hobeak izanik, baina, zertan da hedabideen mapa gurean?


---

***Gurea bezalako hizkuntza txikien etorkizuna hemen bakarrik ez, kanpoan ere jokatzen dela.***

***Unibertsoa gobernatzen omen duten bulkada nagusi biak antzeman daitezke arlo honetan ere: indar zentrifugoak eta indar zentripetoak, alegia.***

## HEDABIDEAK, EUSKARA ETA ETORKIZUNA

Euskal Herriko hedabideen ekosistemari erreparatuko diogu puntu honetara iritsita, eta bereziki euskarazkoen sare bizi eta (bere txikian) dinamikoari. Hona artikulu honen egileak 2009an landutako eskema-zirriborro bat, solaserako abiapuntu modura:



Ohar bat, ezer baino lehen: *Kasu ehunekoen amarruari* jartzen du eskemaren bazter batean, eta arrazoi begi-bistako bategatik diogu hori: izan ere, Izagirrek (2004) gaztigaturiko moduan, telebistaren arloan ehunekoak ematerakoan zaku berean sartu ohi gaituzte euskaldunak eta euskaraz ez dakitenak; hots, datuak errealaokoak (eta euskarazko kateentzat dezentez hobeak) liriatekeela erreferentzia gisa soilik kate horiek ikusi eta uler ditzaketanak (hots, euskaldunak) hartuko balira, gauza jakina baita nekez ikusiko duela euskarazko kate bat hizkuntza hori ulertzen ez duenak.

Gainerakoan, zenbait konstatazio begi-bistako baino ez:

- **Telebistaren** esparruan jaun eta jabe dira Frantzia zein Espainiako kateak,<sup>4</sup> eta, digitalizazioa tarteko, hedabide globalak ere (Fox, BBC, MTV eta enparauak) etxeko egiten ari zaizkigu apurka-apurka. Kinika konplexu honetan, alabaina, euskarazkoak eurak ere ugaldtu egin dira. Euskaltel-en *zapper*-a erosita, barbarako, etxetik ikus ditzakezu ETB1, ETB3, Hamaika TB eta Goiena TB, eta, tarifa bat gehiago ordainduz gero, baita *Betizu*-ren bi kanalak ere.<sup>5</sup>

- **Irratiari** gagozkiola, Nafarroan zein Iparraldean nagusi dira Estatuak eta indartsu daude EAEn ere (SER katea lekuko). Nola-

nahi dela, Hego Euskal Herrian indartsu daude, halaber, EITB taldeko irrati publikoak (Radio Euskadi bereziki, bere 255.000 entzuleekin, baina euskarari oinarri sendoa damaiote, horrez gain, Euskadi Irratia eta Gaztea batuta ateratzen diren 203.000 entzuleek).<sup>6</sup> Ez da gutxiestekoa, era berean, tokian tokiko euskarazko irrati txikien ekosistema aberatsa (Bizkaia Irratia, Euskalerrria Irratia...), bereziki Ipar Euskal Herrian, non Euskal Irratiak sarean sartuta dauden lau irratiek erro sendoak bota dituzten.

– **Prentsari** dagokionez, hortxe daude ahulen Estatuetakoa hedabideak, euren botaldietan 20.000 aleen langa ezin gaindituta baitabilta. Alor horretan Euskal Herriko bertako kazeta ez abertzaleak (nazionalista espainiarrak, nahi bada) dira nagusi: Vocento taldeko *El Correo* (Bizkaian eta Araban) eta *Diario Vasco* (Gipuzkoan) egunkariei buruz ari gara; ezin ahantzi, era berean, Vocentoren bazkide *Sud-Ouest* taldea (Bordelekoa), zeinak Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan nagusi den izen bereko egunerokoa kaleratzen duen. Nafarroan, azkenik, *Diario de Navarra* dugu jaun eta jabe. Dezente errotuta daude, halaber, kazeta abertzale elebidun diglosikoak (*Deia*, *Gara* eta *Le Journal du Pays Basque*).

Nolanahi dela, oso aintzat hartu beharreko fenomeno da euskarazko kazetena ere. Badira euren artean batzuk euskararen lurralde guztian zabaltzen direnak (*Berrria* eta *Argia* batik bat, eta, askoz neurri txikiagoan, *Herria* eta *Aldaketa 16*), eta euretako zenbaitek aintzat hartzeko moduko zabalkundea dauka: CIESen 2009ko lehen ikerketako datuen arabera, konparazio baterako, 64.000 irakurle ditu *Berrria*-ren paperezko argitalpenak.

Tokian tokiko kazetei gagozkiela, bestalde, oso fenomeno interesgarri baten lekuko gara: hainbat eskualdetan euskarak aurrea hartu dio erdarari informazio lokalaren lanketan, eta horren erakusgarri dira Topagunean federaturiko agerkariak (135.000 etxetara iristen diren 35 kazeta orotara) zein Euskarazko Komunikazio Taldeak (EKT, *Berrria* plazaratzen duen empresa berbera) argitaraturiko *Hitza* egunerokoak (7 dira guztira eta 40.000 ale baino gehiagoko botaldi globala daukate).

– **Interneteko** webguneei gagozkiela (horiek ez dira eskeman ageri), datuak argigarriak dira (hemen ere euskaldunak eta euskaldun ez direnak zaku berean sartzearen akatsa errepikatzen den arren): Eustatek (2009) emaniko datuen arabera, ez da euskara hutsez diharduen webgunerik ageri EAeko 20 bisitatuenen artean (bai ordea webgune elebidun batzuk, hala nola [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net), [www.ehu.es](http://www.ehu.es), [www.gara.net](http://www.gara.net) edota zenbait banku eta aurrezki kutxarenak).<sup>7</sup>

– **Beste arlo batzuetan**, azkenik, oso presentzia txikia dauka euskarak: zineman (non, azken boladan ekoizpenak ugaltu izan arren, industriarik ez dagoen oraindik eta, Tinko moduko elkarteen lana gorabehera, banatzaileek aretoetara erdal filmak errotatzen dituzten ia

---

*Autobide zabal horiek,  
alabaina, nekez uzten  
diete lekurik tokian  
tokiko kultura txikiei,  
salbuespenak salbu. Indar  
zentrifugoak desoreka  
hori gainditzen saiatzen  
dira, horretarako zentro  
boteretsuen bideetatik  
aldendu eta euren  
bidegorri-sare propioak  
eraturuta. Haatik, dirua  
behar da horretarako, eta  
hor hasi ohi dira  
oztopoak hizkuntza  
gutxitu askorentzat.*



---

*Ez da gutxiestekoa, era berean, tokian tokiko euskarazko irrati txikien ekosistema aberatsa.*

*Oso fenomeno interesgarri baten lekuko gara: hainbat eskualdetan euskarak aurrea hartu dio erdarari informazio lokalaren lanketan.*

%100ean) edota telefoniaren munduan, konparazio batean (azken arlo horretan Euskaltelen salbuespena aipa daiteke, zeina, bestek beste, Hamaika taldeko kide baita).

## KOMUNITATEAREN GARRANTZIAZ

Hori da, beraz, Euskal Herriko hedabideen erradiografia bizkorra. Zeintzuk joera gailenduko dira, alabaina, aurrera begira? Galesko Legebiltzarrean gai horri buruz hausnartzeko ariketa interesgarria egin berria dute. Bertako Welsh Affairs Committee-k ateratako txostenaren arabera, S4C-k (galeseraz diharduen telebista, ETB baino apur bat lehenago sortua) ondo ulertu eta barneratua du honako hau (2009: 67): "(...) success in the global marketplace could only be achieved on the basis of a strong and memorable identity."

Zein da, hortaz, etxera arte dozenaka telebista-kate iristen zaizkigun honetan, euren xedea? Honako hau (2009: 67-68): "(...) to create a distinctive brand which stands out among the several hundred television channels available (...) Quality and distinctiveness will be the gold standards of the multi-channel, multi-plaform future." Eta zelan lortzen da hori? Hara zer uste duen horretaz BCC Wales-eko Director for Nations and Regions Pat Loughreyk (in Welsh Affairs Committee, 2009: 68):

"As new platforms and new opportunities become available it is really important that we take advantage of those to ensure the local democracy, local identity, local heritage and local language is nurtured and maintained, this is how you build your strength in the world –not by a form of cultural mid-Atlanticism, but being strong in your indigenous identity and your indigenous experience, and having the self-confidence that comes with it. (...) It is that which seeks to appeal to everyone that tends to appeal to no-one."

Honen harira, European Journalism Training Association (EJTA) sarearen aurtengo Annual General Meeting-ean, Sofian (Bulgaria), hiru faktore aipatu ziren aurrera begirako zutabe nagusi modura: hiru C-ei buruz ari gara, hots, Community (han emaniko azalpena hitzez hitz ekaritze aldera: *importance of commitment with society + social relevance*), Content (*reliable information*) eta Cross Media (*multiplatform* izaera).

AEBetako prentsaren krisi latzak ere, bestalde, honi loturiko ikasgai-  
ren bat edo beste damaigu; *Deia*-n (2009-03-10) argitaraturiko albiste batean, adibidez, agerian geratzen da komunitate jakinetan erroak botatzeak hedabideentzat daukan garrantzia: "Los periódicos comunitarios y locales son los que mejor han logrado capear la crisis tanto en el mercado general como en nichos más específicos (...) Ofrecen un contenido con el que el lector se siente muy identificado y son publicaciones con las que los usuarios tienen lazos muy fuertes".

Sakon dezagun gehiago ildo hori: Nafarroako Gobernuak tokiko prensa zenbat irakurtzen den aztertu du aurreko lehenengo biderrez, eta ondorioak argigarriak izan dira: tokiko prentsaren presentzia igo egin da

azken urteotan Nafarroako gizartean, eta gaur egun 14 urtetik gorako nafarren %42,7k irakurtzen dute prensa-mota hori. Deigarria da, halaber, euskarazko produktuek duten harrera ona. Asterokoen artean, Sakanako *Guaixe* da laugarren zabalduena (12.000 ale), *La Verdad* Nafarroako Elizak argitaratzen duen aldizkariaren (40.000) eta Erriberako *Plaza Nueva* (19.000) eta *La Voz de la Ribera* (17.000) aldizkariaren atzetik. Hamaboskariaren artean, berriz, Nafarroan gehien banatzen direnetan *Ttipi-Ttapa* da bigarren aldizkaria (25.000 ale), Lizarrerriko *Calle Mayor* argitalpenaren atzean (27.000).<sup>8</sup> Topagunean federaturiko zenbait aldizkarik ere euren irakurleei buruzko ikerketak egin berri dituzte eta datuak oso positiboak dira haien fideltasun- eta jarraipen-mailei dagokienez.

Aipatu berri ditugun adibide horietako gehienek komunitatearen garrantzia azpimarratzen dute. Komunitate baten sendo errotzen bazara, bertako jendearekin lan egiten baduzu, bertako enpresa iragarleekin, komunitate horretako erreferentzia-sistema eta kultur-ondasun partekatua baldin badira zure produktuaren oinarri eta ipar, aldeko haizea askoz gertuago izango duzu. Hortxe kokatu behar, besteak beste, *Wazemank* edota *Mihiluze* moduko produktuen arrakasta, eta baita, oro har, tokian tokiko euskarazko prentsarena ere (lokaltasuna eta sustraiak *posizionatzeko* indargune nabarmena direla, alegia). Haatik, inorena baliabide gutxiz eta modu aseptiko samarrean kopiatzen tematzen denak nekez topatuko du bere lekua hedabideen azoka globalean, nekez egingo du inork hedabide horren aldeko hautua balio erantsi jakinik eskaintzen ez badio (oroit Pat Loughreyren esaldiaz: “It is that which seeks to appeal to everyone that tends to appeal to no-one”; *Zabalik* hondoratu izanaren edota *Aldaketa* errotu ezinaren arrazoietakoa batzuk eman diezazkiguke faktore horrek).

## ASABA ZAHARREN BARATZA, REVISITED

Hasierako puntura itzuli behar dugu berriro, kontua biribiltze aldera baino ez bada ere. Parisko txolarreen berri eman digu lehen Lizardik, eta orain asaba zaharren baratzaz mintzol zaigu (2000: 47):

Belar gaiztoak yan ditu  
nire bidexka izkutuak...  
Ala bakanak dakartzi  
bide gañeko mastiak, eta  
ortziak peitu du eguzki (palta du).

Urte yoanen zitala!  
Zuek zarpaildu-itzalia  
lenera nork lekardake?  
zabal naroa nuen baratza,  
gaur ain estu, gaur ain gabe!

---

*Agerian geratzen da  
komunitate jakinetan  
erroak botatzeak  
hedabideentzat daukan  
garrantzia.*

*Komunitate baten sendo  
errotzen bazara, bertako  
jendearekin lan egiten  
baduzu, bertako enpresa  
iragarleekin, komunitate  
horretako erreferentzia-  
sistema eta kultur-  
ondasun partekatua  
baldin badira zure  
produktuaren oinarri eta  
ipar, aldeko haizea askoz  
gertuago izango duzu.*

---

**Lehen zeregina, beraz,  
baratza bera ezagutzea  
dugu, euskarazko  
hedabideen ekosistema  
txikia.**

**Baratzak, alabaina, behar  
den moduan lantzeke  
jarraitzen du oraindik.**

Urte mordoia igaro da olerki hori estreinakoz argitaratu zenetik, eta, hala ere, asaba zaharren baratzak lantzeke jarraitzen du, edo, gutxienez, behar beste landu barik. Lehen zeregina, beraz, baratza bera ezagutzea dugu, euskarazko hedabideen ekosistema txikia. Zer dakigu horretaz? Azken boladan egin dira ikerketa kuantitatibo batzuk; honako hauek, besteak beste:

- CIESen *Euskarazko komunikabideen politikontsumoari buruzko azterlana*, 2007.
- CIESen *Euskarazko hedabideen ikus-entzuleei buruzko azterketa*, 2007.
- Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren *Euskarazko hedabideak* azterketa, 2006.
- Ikerfel-en *Euskarazko komunikabideak erabiltzeko eragingarriak eta eragozpenak*, 2007.
- Euskararen Erakunde Publikoarentzat IPSOS-ek egindako *Komunikabideen erabilpenaren azterketa: telebista eta irratia*, 2007.

Esandako moduan, arlo kuantitatiboa, hedabideen eta merkatuaren arteko harremana da batik bat ikergai azterlan horietan. Zer daukagu hortik aurrera? Zer arlo kualitatiboagoi dagokienez? Prentsaren arloan egin da zenbait ikerketa (gutxi oraindik), baina zulo beltza daukagu ikus-entzunezkoen esparruari gagozkiola. Nork ikertuko ditu, izan ere, Iparaldeko Euskal Irratiak? Edota Euskadi Irratiaren programazioa? Edota ETB 1 eta ETB3ren *parrillak*? Nork euskarazko zinema?...

Ikerketa-beharraren premia, hori bai, denek aitortzen dute: bai HAKOBak, bai Euskara XXI gogoeta prozesuko *Itun berritu baterantz* txostenak, bai *Euskal hedabideak EAEn* txostenak... Izan ere, premia argia da...

- a) ...bai edozein komunitateren arrazoi *existentzialak* direla medio (imajinario sinboliko propioa jorratu eta biziberritzearen garrantzia, mundu erreferentzial beregainaren estrategikotasuna)...
- b) ...bai arrazoi pragmatikoagoak direla tarteko (ba ote dago produktuak hobetzerik ikerketa barik? Modu horretan kultura bat erro-tu eta sendotzerik?)

Baratzak, alabaina, behar den moduan lantzeke jarraitzen du oraindik. Artikulu hasieran baratz hori dela-eta kezkatuta utzi dugu poeta, kax-kax ate-joka zetorkion munduak eragiten zion zer-pentsatua zela tarteko; hurrengo aipuak frogatzen duen moduan, ordea, baratza jorratuta mundura zabaltzearen aldeko zen Lizardi (2000: 43):

“Baiña nik, izkuntza larrekoa,  
nai aunat ere noranaikoa:  
yakite-egoek igoa;  
soina zaar, berri gogoa;  
azal orizta, muin betirakoa”

Euskarazko hedabideak norabide hori bermatzen lagunduko duten ibilgailu/garraio bide izan daitezten gura dugu, beraz, iparrorratz modura (eta orain arteko guztia laburbilduz) oinarritzko ideia hauek dituztela:

- Nor izatea, ez inoren kopia huts. Autokonfiantzatik, ahots propioetik abiatzea, globalizazio garaiotan hedabideen azoka globalean lekua bilatzeko pasaportetik egokiena baita hori (Andu Lertxundik zioen moduan, gu geu izatea da unibertsaltasunari egin diezaioketun ekarpenik preziatuena).
- Komunitatean sakon errotzea, indartsuago izango baikara horrela (zertan datza, komunitateen sorreran ez bada, Tuenti edota Facebook moduko arrakasta? Globalizazio garaiotan ainguratze- eta erreferentzia-puntuen bila dabil jendea, bistan denez).
- Zirkuitu propioak sortu, euskarak nekez bilatuko baitu lekuri indar zentripetoen autobide zabaletan (hori da, berbarako, *Euskaldunon Egunkaria*-k egin zuena: egunkari propioa sortu, besteetan lekutxo bila eskean ibili beharrean; idem Euskal Irratiek Iparraldean, edota Hamaika-k telebista munduan...)
- Barne-ahalak sendotu, aliantza estrategikoak bilatu (etxean zein kanpoan). Telebista garestia izanik eta mundu horretan bakarrik ibiltzea nekeza, eredugarria da, adibidez, Tokiko plataforman bildutako euskarazko telebista txikien arteko elkarlana.
- Berritzaile izan. Ikertu, ikertu eta ikertu. Eta hori, zertarako? Batek, transmisioa bermatzeko, kulturalki errotzeko eta hizkuntza-komunitatea barnetik indartzeko; eta bestetik, hedabideak eurak hobetzeko.

Hau guztia ganoraz egingo bada, ezinbesteko da orain arte hain urri izan den unibertsitatearen eta euskarazko hedabideen arteko elkarlana. ■

## ITURRIAK

- BILBAO, J. B. (1997): *Hau mundu arrano hau*. Zarautz: Susa.
- ETXEBERRIA, M. (2009): "Txikien etorkizuna kanpoan ere jokatzen da" [linean], in *Argia* aldizkaria, 2.175. zenbakia, 2009-03-08, <http://www.argia.com/argia-astekaria/2175/hizkuntza-gutxi-tuak/oso> (kontsulta: 2009-09-25).
- EUSTAT (2009): "La prensa digital se mantiene entre los primeros lugares de la lista de webs más visitadas en 2009" [linean]. Prentsa-oharra, 2009-06-18. [http://www.eustat.es/ele/ele0005200/not000529-1\\_c.pdf](http://www.eustat.es/ele/ele0005200/not000529-1_c.pdf) (kontsulta: 2009-09-25).
- GARABIDE (2009): "Kitxuerazko telebistak Ekuadorren", in *Informazio buletina*, 3. zenbakia, 2009ko apirila, 3-4 orr.
- GILLMOR, D. (2006): *We the media. Grassroots journalism, by the people, for*

---

*Hau guztia ganoraz egingo bada, ezinbesteko da orain arte hain urri izan den unibertsitatearen eta euskarazko hedabideen arteko elkarlana.*

- the people*. Sebastopol (California): O'Reilly.
- IZAGIRRE, K. (2004): "Masustak, madariak eta New York", in *Jakin* aldizkaria, 142. zenbakia, 11-25 orr.
- KISHAN THUSSU, D. (2006): *International Communication. Continuity and Change*. London: Hodder Arnold.
- LIZARDI, X. (2000): *Xabier Lizardi. XX. mendeko poesia kaierak*. Zarautz: Susa.
- SARASOLA, K. (2009): "Google Translate zerbitzuak ez daki euskaraz" [linean], in <http://sustatu.com/1253536800> (kontsulta: 2009-09-25).
- WELSH AFFAIRS COMMITTEE (2009): *Globalisation and its impact on Wales. Second Report of Session 2008-09. Volume I*. Cardiff: House of Commons.
- ZENBAIT EGILE (2008): *Euskal hedabideak EAEn*. Eusko Jaurlaritzak agindutako txosten argitaragabea.

## OHARRAK

1. <http://www.vilaweb.cat/>
2. Sarasolaren arabera bi arrazoi egon daitezke Googleren aplikazio horrek euskara aintzat ez hartze-ko: hizkuntza oso diferentea izatea, batetik, eta Googlekoek eurek testu elebidun gutxi edukitzea, bestetik.
3. Elebakartasunaren aldeko diskurtsoa ere gaindituz goazela dirudi, ez baita hori diskurtsorik egokiena gaur egungo munda globalerako. Arreta ematen du, esate baterako, EHEk aurtien (2009an) Ondarroan antolaturiko hizkuntza-eskubideen egunerako hautatutako lemak: *Euskara, menpekotik lehentasunezkora* [geurea da azpimarra]. HUHEZIn, ikastoletan eta beste zenbait gunetan ere, horri loturik, euskararen ardazturiko eleaniztasunaren aldeko diskurtsoa ari da errotzen (beti ere euskararen hegemonia bermatuta, bistan denez).
4. Bertako ekoiztetxeetan ere nabari da eragin hori. Esanguratsua da, berbarako, Mediaprobe etxe madrildar indartsuak K-2000 irentsi izana.
5. Ezin ahanzi, era berean, Interneten ere bidea egiten ari direla euskarazko telebistak: Ibaizabal telebista, aurrerago ere aipatuko dugun [www.tokiko.tv](http://www.tokiko.tv), *Argia* eta *Berria*-ren ahaleginak...
6. CIESen 2009ko lehen ikerketaren datuak dira. Etxe horrek EITB Irratia musika-kateari emaniko 20.000 entzuleak ere euskarazkoen zakuan sartu zituzten EITBko arduradunek 2009ko labealdiaren datuak ematerakoan, baina kate horretan euskara bezainbat gaztelania entzun daiteke.
7. Euskara hutsezkoen artean [www.berria.info](http://www.berria.info) da bisitatuenetakoa (15.000 bisitari egunero CIESen 2009ko lehen ikerketaren arabera).
8. Ikus horri buruz gehiago in *Berria*, 2009-05-27.